



# Gure eskubideak baliatzen ditugu?



## JUSTIFIKAZIOA

Kontsumitzaile arduratsuek ezagutzen dituzte beren eskubideak eta betebeharrak.

Ondasunak erosi eta zerbitzuak kontratatzen direnean, ondo informatuta egoteak kontsumo-gatazkak saihesten laguntzen du.

## HELBURUAK

- Kontsumo-gatazka baten aurrean nola jokatu askatasunez eta iritzirik gabe azaltzea.
- Kontsumitzaileek legez dituzten eskubideak ezagutzea, eta horren inguruan gogoeta egitea.
- Prosumitzailearen kontzeptua ezagutzea.
- Kontsumitzaile gisa norberak dituen interesak aldeztean, modu kontzientean jarduteko gai izatea.
- Kontsumitzaile gisa dituzten betebeharrak ezagutzea, euren eskubideak eskatu ahal izateko.
- Kontsumitzaileen interesak babesteko, kontsumitzaile antolakundeak izateak zenbaterainoko garrantzia duen jabetzea.

## EDUKIAK

- Eraikuntza kooperatiboa.
- Kontsumitzaile eta erabiltzaile kontzeptua.
- Prosumitzailearen kontzeptua.
- Kontsumitzailearen babesa:
  - Kontsumitzailearen eskubideak.
  - Kontsumitzailearen betebeharrak.
- Kontsumo-gatazkak konpontzeko bideak.
- Kontsumo-erakundeak: KBKEI, KIUB, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarteak.

## ARIKETAK

### HASIERAKO FASEA (Aurretiko ariketa)

Bete galdetegi hau.

### GARAPEN-FASEA (Saioa)

- Ongietorria eta dinamikaren azalpena.
- Langintzan aritu eta eraiki.
- Laburbiltzen eta ixten.

### APLIKAZIO ETA KOMUNIKAZIO FASEA (Ondorengo ariketa)

- Zenbat ikasi duzu? Egiaztatu!
- Partekatu bideoa.

## OINARRIZKO KONPETENTZIEI EGINDAKO EKARPENA

### DISZIPLINAKOAK

- Komunikazio-, hizkuntza- eta literatura-gaitasuna.
- Gaitasun sozial eta zibikoa.
- Gaitasun artistikoa.
- Gaitasun motorra.

### ZEHARKAKOAK

- Hitzeko, hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako gaitasunak.
- Ikasten eta pentsatzen ikasteko gaitasuna.
- Izaten jakiteko gaitasuna.
- Elkarrekin bizitzeko gaitasuna.
- Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia.

## METODOLOGIA

- Lankidetzalana.
- Lan kooperatiboa.
- Banakako lana.
- Thinking based learning.
- Gamifikazioa.
- Dinamika ludikoak.

## ANTOLAKUNTZA

*IKT baliabideak eta tresnak	Espazioak eta taldeak	Iraupena
Arbel digitala/proiektorea. Tabletak. Interneterako sarbidea. 4-5eko taldeentzako mahai handiak	IKT ezaugarriak dituen gela. 4-5 ko pertsonen taldeak egingo dira.	90'

## EBALUAKETA

### IRAKASLEAK

Ebaluazio inkesta.

### IKASLEAK

Ebaluazio inkesta.